

## **MUNDAKA / Liburutegia arratsaldez baino ez dute zabalduko**

**Azterketa garaietan goizean ere zabalik egongo da; ikasleek eskatu  
baitute**

M. Zabalondo

J. M Etxeita Mundakako Udal Liburutegiak ordutegi berria izango du hilaren 22tik (datorren astelehena) aurrera. Liburutegia arratsaldez baino ez dute irekiko. Bainan azterketa garaietan goizez ere zabalik egongo da, ikasleek eskatu dutelako.

Hiru hilabetean zehar froga egin ondoren, goizez eta arratsaldez liburutegia zabalduz, ikusi dute arratsaldez jende gehiago joaten dela. Ostera, goizeko ordutegian oso gutxi erabiltzen dute liburutegia, liburutegiko langileen arabera.

Hortaz, astelehenetik aurrera, 16:00etatik 20:00etara zabalduko dute liburutegia.

### **Ordutegi berezia**

Urtarrilaren 29tik otsailaren 16ra goizetan ere zabalik egongo da liburutegia. Sasoi horretan ikasleek azterketak dituzte eta aurreko urteetako ikasleen eskariak kontuan hartuz, azterketa garaian ordutegi zabalagoa izango du liburutegiak. Hain zuen ere, egun horietako ordutegia 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Bestalde, liburutegi azpian kokatuta dagoen Ludotekan haurrentzako jardunaldiak antolatzen ari dira. Hain zuen, urtarrilaren 26rako (datorren barikua) haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa izango da Ludotekan, 18:00etatik aurrera